

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
(EITB) eta mendeko dituen sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2013





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA.....	7
II IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.1.1 Zuzendarien kontratazioa	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	11
III.1 Langileria.....	11
III:1.1. Zuzendariak	11
III.1.2 Burutzak	12
III.1.3 Merkataritza kontratuak	12
III.1.4 Gauzazko ordainsariak	12
III.2 Beste batzuk	12
III.2.1 Hornitzaileei ordainketak	12
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA.....	13
IV.1 EITBren eta taldeko sozietateen kontu bateratuak	13
IV.2 EITBren eta taldeko sozietateen banako kontuak.....	15
IV.3 EITBren eta taldeko sozietateen aurrekontu likidazioa.....	20
ALEGAZIOAK	23
ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN.....	31



II. OPINIÓN.....	33
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	33
II.1.1 Contratación de personal directivo.....	33
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	33
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	35
III.1 Personal.....	35
III.1.1 Personal directivo	35
III.1.2 Jefaturas	36
III.1.3 Contratos mercantiles	36
III.1.4 Retribuciones en especie	36
III.2 Otros.....	36
III.2.1 Pagos a proveedores.....	36
IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS	37
IV.1 Cuentas consolidadas de EITB y sociedades del Grupo	37
IV.2 Cuentas individuales de EITB y sociedades del Grupo.....	39
IV.3 Liquidación de presupuestos de EITB y sociedades del Grupo.....	44
ANEXOS	47
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	47
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	48
A.3 Producción.....	50
A.4 Contratación.....	51
ALEGACIONES	53

Vitoria-Gasteiz, 2015ko maiatzaren 28a

Vitoria-Gasteiz, 28 de mayo de 2015



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EITB	Euskal Irrati Telebista Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa.
EI, SAU	Eusko Irratia, S.A. Pertsona bakarreko sozietate anonimoa.
ETB, SAU	Euskal Telebista, S.A. Pertsona bakarreko sozietate anonimoa.
EITBNET, SAU	EITBNET, SAU Pertsona bakarreko sozietate anonimoa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
6/2011 Legea	6/2011 Legea, abenduaren 23koa, EAEn 2012rako aurrekontuei buruzkoa, 2013rako luzatua.
GI SAU	Gasteiz Irratia, S.A. (Pertsona bakarreko sozietate anonimoa).
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bategina.
EAETB	LD 1/1994 LD, irailaren 27koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Testu Bategina eta 2011ko ekainaz geroztik 1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraiki, Euskal Irrati Telebista /EITB Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2013ko ekitaldiari dagozkionak.

2013ko ekitaldiaren fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta eragimenari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko irizitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarrizten duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista, SAU /ETB, SAU, Eusko Irratia, SAU /EI, SAU, Gasteiz Irratia, SAU /GI, SAU eta Eitbnet, SAU. Horrezaz gain, 2013ko abenduaren 31n EITBNET, SAUk honako partaidetza hauek ditu: Vilau Media, SLn, % 25; Expressive Media Proyects, SLn % 24,62; Media For Future, SLn % 16,43; eta Kulture Klub Euskadi, SLn % 22,73.

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEn Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, EITBNET, SAU Estatutuaren 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.



2013ko ekitaldirako ez da inongo kontratu-programarik izenpetu, ezta horren jarraipen-batzorderik elkartu ere eta 2012koa luzatu da, 2012ko ekainaren 21ean izenpetutako kontratu-programaren 7. klausulan jasotakoari jarraiki, aldeztatik 2011ko abenduaren 28ko jarraipen batzordeak eta 2012ko maiatzaren 22ko EJRen Gobernu Kontseiluak onartu zutena.

Kontratu-programa honek, aurrekoek bezala, Erakundeak gauzatu beharreko irrati-telebistako zerbitzu publikoaren edukiak definitzen ditu; irrati-telebistako zerbitzu publikoa emateko dituen konpromisoak, zerbitzua kudeatzekoak, eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen bitartez finantzaketa egonkorra definitzen du, berariazko jarduerak, zerbitzuen prestazioak eta Erakundearentzat eta bere Kudeaketa Sozietateentzat aktibo erreal eta finantzazkoetan egindako inbertsioek eragindako ustiaketa gastua berdintzeko.



II IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ZUZENDARIEN KONTRATAZIOA

1. 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badio ere “erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, aldez aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanez”, egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Erakunde Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutakoak arautuko duela (47.1 art.), nahiz era berean dioen “Erakunderako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki” (47.2 art.).

130/1999 Dekretuari jarraiki, EITBk “Goi Karguetan” lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.

2013ko ekitaldian zuzendaritza postu funtzionaletara 19 pertsonak izan dute sarbidea, Entea sortzen duen Legearen 16. artikuluan aurreikusten den “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta, aurrez aipatutako 4/1996 Legeak aldarazitakoa; horietatik guztietatik bakar batek ez zuen aldez aurretik Eitb taldearekin kontratu harremanik eta ez da “goi kargudun” modura ageri; alabaina, lan kontratu mugagabea egin zaio eta horrek 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen ustetan, Enteak eta mendeko sozietateek aurreko paragrafoan aipatutakoa alde batera, zuzentasunez bete dute 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Entearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu finkatuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Gure iritzian eraginik izan gabe, Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45 artikulua gaineko arreta erakarri nahi duzu,



zeinak dioen erakundea eta mendeko dituen sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEren Aurrekontu Orokorraren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatuko direla. Bestetik, Eitbnet, SAU, bere Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da. Bestetik, aurrez aipatutako Legearen 44. artikulua agintzen du, Erakundea eta erakunde kudeatzaile eta eskumendekoen aurrekontuak kaltetu gabe, finkatutako aurrekontu bat zehaztuko da, uneko edo behin betiko defizitak saihestearren eta finkatutako aurrekontu honetan barne hartutako erakundearen superabitaren bidez horiei aurre egitea bideratzearen.

Urteko kontuak abian den enpresaren printzipioaren baitan egiten dira, Administrazioaile Bakarrak jardueraren jarraipenaz inongo zalantzarik ez duelako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoa izaki eta indarrean den kontratu-programatik eratorritako finantzaketa zuzena duelako; bada, etorkizunean behar hainbateko zenbatekoekin eusten badio, aktiboak gauzatzeko eta finantza obligazioei eta beste era batekoei aurre egiteko jarraikortasuna bermatuko du, honekin baterako 2013ko abenduaren 31n finkatutako balantzean erregistraturik dauden zenbateko eta epeen arabera.

Eusko Jaurlaritzatik jasotako ekarpenek ez dituzte ibilgetuko amortizazioak estaltzen, izan ere ustiaketa defizitari eta inbertsioei soilik aurre egiteko baliatu dira; honela, bada, 2013ko abenduaren 31n finkatutako funts propioen zenbatekoa 70,5 milioi eurorena da eta honenbestez, data horretako funts soziala baino 152,7 milioi euro txikiagoa, lehenagoko ekitaldietako emaitza negatiboak metatzearen ondorioz



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 LANGILERIA

III.1.1 ZUZENDARIAK

2013ko abenduaren 31n indarrean zegoen plantillan, 2013ko ekainaren 25eko eta urriaren 22ko EITB taldearen organigrama berria onartu ondoren, berariazko araudiari meneratutako 4 “goi kargudunetz” gain, beste 73 pertsona ageri dira “zuzendaritzako langile” modura; horietatik, aurreko urteetan sartutako 20 aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak; halaber, beste 53 pertsona, guztiak 2013 baino lehenago sartutakoak, taldeko langile finkoak dira, izendapen askearen prozedura baliatuta eskuratu dutenak lanpostua, 4/1996 Legearen 1.2 artikuluari jarraiki, 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duena.

Gainera, organigramaz kanpo erantzukizun karguak dituzten 40 pertsona daude; horietako 22, aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak. Gainerako 18 pertsonak EITB taldeko langile finkoak dira.

Zuzendaritzak 2013an profesionaltasun irizpideekin eta aurretik EITB talderarekin lan-harremanik ez zuten 42 pertsonen, 20 organigraman jasoak eta 22 organigramaz kanpokoak, banaka berretsi ziren konfiantzazko langile izaera eta karguan jarraipena, egungo zuzendaritzaren agintaldiaren iraupenari meneratua.

Aintzat hartuta hainbat komunikabideren jabe den Ente honek duen berezitasuna kanpotik datorren langileriaren kontratazioan egungo egoera ebazteko eta zuzendari nagusiak lan legeria betetzeko eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki deialdi publikora meneratzeko eskumenak bateratzeko (Entearen Legearen 16. eta 47. artikulua), nahiz organigramako lanpostuak murriztu diren eta honenbestez, profesionaltasun irizpideekin izenda daitezkeen zuzendariak (5/1982 Legearen 16.2.f artikulua), gomendagarria litzateke zuzendari nagusiak organigrama aldaketa onartzeko proposamena egitea Administrazio Kontseiluari, zeinetan “goi kargu” edo baliokidetzat jotako lanpostuak zehaztuko diren, zentzuzko kopuruan, 130/1999 Dekretuaren ondorioetarako eta EITB taldearen plantillakoak izan gabe, betiere profesionaltasun irizpideei jarraiki, lanpostua eskuratu ahalko dutenak zuzendari nagusiaren agintaldiak dirauen aldirako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.2 BURUTZAK

Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutzako lanpostuak bete, balioztatu eta ordaintzeko moldeari dagokionez eta zuzendaritzaren esku geratzen da, baina lanpostuaren eta egindako balorazioen ebidentzia utzi gabe.

Beharrezkoa da burutzako lanpostuen beharrianak eta ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.

III.1.3 MERKATARITZA KONTRATUAK

Merkataritza kontratu bitartez berariazko lanak egiteko langile profesional eta/edo artistaren kontratazioan, ia beti programak aurkezteko edo horiek prestatu, editatu eta gauzatzeko, ez dago inongo hautaketa prozedurarik finkaturik eta ETB, SAU eta EI, SAUren programazioko arduradunen eta zuzendaritzaren irizpidearen arabera gauzatzen da hainbat probaren bitartez; ez da, ordea, hautaketarako baliatutako profil eta irizpideen ebidentziarik jasotzen. Gomendagarria litzateke prozedura normalizatua onestea kontratu mota honetan egin beharreko proba eta irizpideekin; baita, egindako kontratazioak eta horien baldintzak justifikatuko dituzten emaitzen agiri bidezko ebidentzia ere jasotzea.

III.1.4 GAUZAZKO ORDAINSARIAK

Langileei ondasunak erosteko emandako maileguen gauza bidezko ordainketak ez dira horrela aitortzen NUIZ ondorioetarako.

III.2 BESTE BATZUK

III.2.1 HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2013ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 39,3 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 45 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 35 egunean gainditu da. Bestetik, 2013ko abenduaren 31n EITB taldeko hornitzaileei ordaintzeke zegoen saldotik 1,1 milioi euroren zenbatekoak (horietatik, 997.964 euro ETB, SAUri dagozkio), legeak horretarako finkatzen duen legezko 30 eguneko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN KONTU BATERATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketen egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2013ko abenduaren 31n finkatuak eta auditatuak:

FINKATUTAKO EGOERA BALANTZEAK			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2013	2012	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2013	2012
AKTIBO EZ ARRUNTA	68.164	55.516	ONDARE GARBIA	82.005	71.557
Ibilgetu ukiezina	7.972	8.529	Berezko funtsak	70.527	58.004
Ibilgetu materiala	60.096	46.853	Funts soziala	223.241	203.219
Taldeko eta elkart. enpresetan e/luz. inber.....	9	46	Finkatutako sozietateetan erretserbak	219	133
Finantza inbertsioak e/luz.	87	88	Baliokidetzan jarritako soziet. erretserbak ..	(83)	13
AKTIBO ARRUNTA	36.316	47.805	Aurreko ekitaldietako ondorioak	(145.373)	(137.982)
Izakinak	16.665	18.607	Soziet. nagusiari egotzitako ekitald. emaitz.	(7.477)	(7.379)
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt	10.253	17.508	Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	11.478	13.553
Taldeko eta elkart. enpresetan e/lab. inber.....	370	370	PASIBO EZ ARRUNTA	211	985
Finantza inbertsioak e/lab.	24	28	Zorrak eta aldizkakotzeak e/luz.	211	985
Aldizkakotzeak e/lab.	52	52	PASIBO ARRUNTA	22.264	30.779
Eskud. eta b.aktibo likido baliokide batz.	8.952	11.240	Zuzkidurak eta zorrak e/lab.	2.723	2.680
			Merkat. hartzek. & ordaintz. b.kontu batz. ...	19.328	27.774
			Aldizkakotzeak e/lab.	213	325
AKTIBOA GUZTIRA	104.480	103.321	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	104.480	103.321

BATERATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA		Euroak milakotan	
	2013	2012	
Negozio zifratik zenbateko garbia	13.862	15.963	
Izakinen bariazioa	(2.080)	(875)	
Enpresek euren aktiborako egindako lanak	-	325	
Hornidurak	(39.042)	(43.677)	
Bestelako ustiaketa sarrerak	109.800	121.695	
Langileria-gastuak	(55.980)	(54.139)	
Bestelako ustiapen gastuak	(26.725)	(38.751)	
Ibilgetuaren amortizazioa	(12.428)	(12.683)	
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte	5.072	5.473	
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza	-	-	
USTIAKETAREN EMAITZA	(7.521)	(6.669)	
Finantza sarrerak, finantza gastuak eta truke aldeak	85	(614)	
EMAITZA FINANTZARIOA	85	(614)	
Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza	(34)	(96)	
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7.470)	(7.379)	
Mozkinen gaineko zerga	(7)	-	
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA	(7.477)	(7.379)	



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BATERATUTAKO ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA BATERATUAK	Euroak milakotan	
	2013	2012
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(7.477)	(7.379)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	3.000	4.813
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(5.075)	(5.473)
AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU BATERATUAK GUZTIRA	(9.552)	(8.039)

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA BATERATUAK GUZTIRA

	FUNTS		AURREKO		JASOTAKO DIRU-LAG.,	
	SOZIALA ETA		EKIT.		DOHAIN. ETA	
	ERRETSERBAK	EMAITZAK	EMAITZA	LEGAT.	GUZT.	
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	221.398	(129.285)	(7.737)	14.213	98.589	
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7.379)	(660)	(8.039)	
Funts sozialaren bariazioa	(18.970)	-	-	-	(18.970)	
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	937	(8.697)	7.737	-	(23)	
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	203.365	(137.982)	(7.379)	13.553	71.557	
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7.477)	(2.075)	(9.552)	
Funts sozialaren bariazioa	20.021	-	-	-	20.021	
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	(9)	(7.391)	7.379	-	(21)	
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	223.377	(145.373)	(7.477)	11.478	82.005	

ESKUDIRUAREN BATERATUTAKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2013	2012
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(7.469)	(7.380)
Emaitzari doiketak	8.033	9.669
Kapital arruntean aldaketak	(575)	(9.340)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	51	221
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	40	(6.830)
Inbertsioen ordainketak	(6.484)	(5.566)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	156	33
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(6.328)	(5.533)
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	-	-
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	4.000	6.500
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	4.000	6.500
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(2.288)	(5.863)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	(11.240)	(17.103)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	8.952	11.240



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

2013ko abenduaren 31n urteko kontuak honako hauek dira:

BALANTZEA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB.S.A.U.	
	2013	2012	2013	2012
AKTIBO EZ ARRUNTA	69.243	56.954	46.517	52.369
Ibilgetu ukiezina.....	541	528	7.166	7.631
Ibilgetu materiala.....	19.022	-	39.351	44.739
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	49.593	56.339	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	87	87	-	-
AKTIBO ARRUNTA	13.591	17.739	29.517	40.010
Izakinak.....	-	-	16.666	18.606
Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	4.662	6.521	4.341	9.089
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	-	-	8.428	12.230
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	1	3	23	24
Aldizkakotzeak.....	3	4	42	42
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	8.925	11.211	17	19
AKTIBOA GUZTIRA	82.834	74.693	76.034	92.380

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB.S.A.U.	
	2013	2012	2013	2012
ONDARE GARBIA	70.851	58.287	56.918	65.221
Berezko funtsak.....	70.418	57.846	45.882	52.121
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	433	441	11.036	13.100
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	211	985
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	211	985
PASIBO ARRUNTA	11.983	16.406	18.905	26.174
Epe laburreko hornidurak.....	-	-	870	922
Zorrak epe laburrera.....	-	92	1.542	1.350
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera.....	11.177	15.390	-	-
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	806	924	16.280	23.577
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	213	325
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	82.834	74.693	76.034	92.380



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU	
	2013	2012	2013	2012
Negoio zifratik zenbateko garbia	-	-	11.786	14.004
Izakinen bariazioa	-	-	(2.080)	(875)
Hornidurak	(215)	(234)	(37.128)	(41.863)
Bestelako ustiaketa sarrerak	6.155	6.230	86.091	98.292
Langileria-gastuak	(4.105)	(4.203)	(35.199)	(34.123)
Bestelako ustiaketa gastuak	(1.545)	(1.747)	(23.572)	(35.235)
Ibilgetuaren amortizazioa	(27)	(9)	(11.881)	(12.108)
Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egoztea	8	8	5.064	5.465
Beste batzuk	-	-	-	-
USTIAKETAREN EMAITZA	271	45	(6.919)	(6.443)
Sarrera finantzarioak	6	66	55	104
Finantza gastuak eta truke aldeak	(11)	(19)	46	(11)
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura eta emaitza	(7.715)	(7.482)	-	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(7.720)	(7.436)	101	93
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7.449)	(7.391)	(6.818)	(6.350)
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(7.449)	(7.391)	(6.818)	(6.350)

BALANTZEA

Euroak milakotan

	EITB S.A.		GI S.A.		EITBNET, SAU	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
AKTIBO EZ ARRUNTA	633	924	1.092	1.169	264	400
Ibilgetu ukiezina	4	9	-	-	261	362
Ibilgetu materiala	629	915	1.092	1.169	-	30
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak	-	-	-	-	3	8
AKTIBO ARRUNTA	3.638	4.112	467	610	520	724
Izakinak	-	1	-	-	-	-
Merkataritza zord. eta kobratzeko beste kontu batzuk	870	1.260	231	274	149	343
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak	2.758	2.844	229	329	370	380
Finantza inbertsioak epe laburrera	-	-	-	-	1	1
Aldizkakotzeak	4	3	2	2	-	-
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak	6	4	5	5	-	-
AKTIBOA GUZTIRA	4.271	5.036	1.559	1.779	784	1.124



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Euroak milakotan

	EITB S.A.		GI S.A.		EITBNET SAU	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
ONDARE GARBIA	2.499	2.793	1.189	1.274	134	282
Berezko funtsak	2.499	2.793	1.189	1.274	134	282
PASIBO ARRUNTA	1.772	2.243	370	505	650	842
Epe laburreko hornidurak.....	255	241	44	41	-	-
Zorrak epe laburrera	-	1	-	16	13	18
Taldeko & elkartutako enpresekiko zorr. epe laburrera.....	-	-	-	-	238	-
Merkataritza hartzekod. eta ordaintzeko bste knt batz.....	1.517	2.001	326	448	399	824
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	4.271	5.036	1.559	1.779	784	1.124

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB S.A.		GI S.A.		EITBNET S.A.U.	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Negozio zifratik zenbateko garbia	3.165	3.559	518	595	2.912	4.319
Hornidurak	(1.741)	(2.136)	(209)	(212)	(1.628)	(2.500)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	17.570	18.014	3.569	3.653	-	-
Langileria-gastuak.....	(13.166)	(12.535)	(2.636)	(2.467)	(837)	(811)
Bestelako ustiaketa gastuak	(5.829)	(6.649)	(1.234)	(1.396)	(807)	(1.138)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(295)	(297)	(86)	(82)	(139)	(187)
USTIAKETAREN EMAITZA	(296)	(44)	(78)	89	(499)	(317)
Sarrera finantzarioak.....	2	4	-	-	7	8
Finantza gastuak eta truke aldeak	-	-	-	-	-	-
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura & emaitza ...	-	-	-	-	(6)	(108)
EMAITZA FINANTZARIOA	2	4	-	-	1	(100)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(294)	(40)	(78)	89	(498)	(417)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	(7)	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(294)	(40)	(85)	89	(498)	(417)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

.../...

	JAULK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZA	JASOTAKO DIRU-LAG., DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT.
E.I., S.A.U.					
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.405	(12.242)	640	-	2.803
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(40)	-	(40)
Kapitalaren igoerak	30	-	-	-	30
Emaitzen banaketa	64	576	(640)	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.499	(11.666)	(40)	-	2.793
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(294)	-	(294)
Kapitalaren igoerak	-	-	-	-	-
Emaitzen banaketa	-	(40)	40	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.499	(11.706)	(294)	-	2.499
GI, SAU					
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.431	(4.142)	(204)	-	1.085
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	89	-	89
Kapitalaren igoerak	100	-	-	-	100
Emaitzen banaketa	-	(204)	204	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.531	(4.346)	89	-	1.274
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(85)	-	(85)
Kapitalaren igoerak	-	-	-	-	-
Emaitzen banaketa	-	89	(89)	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.531	(4.257)	(85)	-	1.189
EITBNET, SAU					
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	974	-	(395)	-	579
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(417)	-	(417)
Kapitalaren igoerak	120	-	-	-	120
Emaitzen banaketa	-	(395)	395	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	1.094	(395)	(417)	-	282
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(498)	-	(498)
Kapitalaren igoerak	350	-	-	-	350
Emaitzen banaketa	-	(417)	417	-	-
2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA	1.444	(812)	(498)	-	134



ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB,S.A.U.	EI, SAU	GI, SAU	EITBNET, SAU
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(7.449)	(6.818)	(294)	(78)	(498)
Emaitzari doiketak	7.721	7.201	505	136	137
Kapital arruntean aldaketak	1.652	(1.689)	(207)	(28)	(230)
Eskudiruzko beste fluxu batzuk	(6)	55	2	(7)	7
GUZTIRA	1.918	(1.251)	6	23	(584)
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(991)	(6.193)	(5)	(24)	(42)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	-	3.842	-	-	28
GUZTIRA	(991)	2.351	(5)	(24)	(14)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	-	3.600	-	-	350
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(3.213)	-	-	-	248
GUZTIRA	(3.213)	3.600	-	-	598
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	(11.211)	(19)	(5)	(5)	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	8.925	17	6	5	-
GUZTIRA	(2.286)	(2)	1	-	-

IV.3 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

2013ko ekitaldirako kapital eta ustiaketa aurrekontuak honako hauek dira:

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SAU	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
INBERTSIOAK										
Inbertsioengatiko ordainketak	3.200	3.200	7.600	7.600	30	30	150	150	120	120
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital zirkulatzailaren bariazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aldak. eragina Truke motak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren defizita	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	3.200	3.200	7.600	7.600	30	30	150	150	120	120
FINANTZAKETA										
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondareko baliabideengatik kobrantzak	3.200	3.200	7.600	7.600	30	30	150	150	120	120
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Eskudiruaren murrizketa garbia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	3.200	3.200	7.600	7.600	30	30	150	150	120	120



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SAU	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
GASTUAK										
Hornidurak	11	11	14.196	14.196	710	710	45	45	-	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	52	52	41.791	41.791	1.543	1.543	190	190	2.984	2.984
Langileria-gastuak	4.588	4.588	36.829	36.829	13.283	13.283	2.611	2.611	883	883
Bestelako ustiaketa gastuak	1.533	1.533	28.551	28.551	6.605	6.605	1.461	1.461	1.534	1.534
Ibilgetuaren amortizazioa	3	3	12.655	12.655	313	313	76	76	127	127
Izakinen bariazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Eman beharreko diru-laguntzak	122.063	122.063	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza gastuak	-	-	60	60	-	-	-	-	-	-
Ibilgetua besterentz. emaitz. narriad.	7.170	7.170	-	-	-	-	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA	135.420	135.420	134.082	134.082	22.454	22.454	4.383	4.383	5.528	5.528
SARRERAK										
Negoio zifraren zenbateko garbia	-	-	18.050	18.050	4.127	4.127	654	654	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	127.947	127.947	103.377	103.377	18.014	18.014	3.653	3.653	5.401	5.401
Jaso beharreko diru-lag.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ustiaketa diru-lag. emaitzetara egoztea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinen bariazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ibilgetu ez finantz.diru-lag. egoztea	-	-	6.000	6.000	-	-	-	-	-	-
Sarrera finantzarioak	300	300	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiko galera	7.173	7.173	6.655	6.655	313	313	76	76	127	127
SARRERAK GUZTIRA	135.420	135.420	134.082	134.082	22.454	22.454	4.383	4.383	5.528	5.528





EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA HAREN MENPEKO SOZIETATEEN FISKALIZAZIOAREN 2013KO EMAITZETARAKO ALEGAZIOAK.

TXOSTENAREN ONDORIOETARAKO ALEGAZIOAK:

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ZUZENDARITZAKO LANGILEEN KONTRATAZIOA

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1 ATALERAKO:

TVCP-HKEEren txostenak adierazten du EITB sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 47. artikulua urratu dela, 2013. urtean zuzendaritza-kargu bat kontratatu zelako, profesionaltasun-printzipioan oinarrituta, manu horrek EITBn eta haren sozietateetan langileak kontratatzeke ezartzen dituen merezimendu- eta gaitasun-printzipio orokorrak aplikatu gabe.

Bada, aurreko ekitaldietako auditoretzak direla-eta gauzatutako zuzendaritza-langileen kontratazioari buruz egindako alegazioei kalterik egin gabe, alegazio horiek kopiatutzat jotzen baititugu, berriro ere adierazi nahi dugu, beti ere TVCP-HKEEren eginkizunarekiko errespetu gorenetik abiatuta, juridikoki ez gaudela ados gai honen inguruan duen tesiarekin. Lehenengo eta behin, arrazoi honengatik: TVCP-HKEEk berak dioten bezala, “aipatutako EITB gidatzeko legean ez dago definituta zuzendaritza-langileen figura”; beraz, TVCP-HKEEk berak onartzen du haren ustez badaudela legezko zalantzak EITBekin eta haren sozietateekin lan-harremanetan jartzeko bide bikoitz tradizionalaren inguruan:

- Plantillako langile finkoen bidea, haiek merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatzen dituzten hautespen-sistemen bidez sartu behar baitira ezinbestean (47.2 artikulua).
- Zuzendaritza-langileen bidea, haiek kontratatzeke profesionaltasun-printzipioa bete behar baita (16. artikulua).

TVCP-HKEEren inkongruentziaren arrazoia da automatikoki, alderdi honen aburuz inolako babes juridikorik gabe, “zuzendaritza-langile” kontzeptua “goi-kargu edo horren baliokide” kontzeptuarekin parekatzen duela; horrela, izendapen askeko kontratazioa, eta ondorioz lege onartuta dagoen profesionaltasun-irizpidearen arabera, goi-kargu edo horren baliokidearen estatus juridiko hori daukatenentzat mugatzen du. Aitzitik, EITBren iritzi, goi-kargu edo horien baliokideen araubide juridikoa ez daukaten zuzendaritza-izaerako beste kargu batzuk egon daitezke eta horietarako enpresako plantilla finkokoak ez diren pertsonak izenda daitezke.

EITBren tesi hori berresten duten argudioak honako hauek dira:

1.- Zentzu hertsian zuzendaritza-langileak nor diren lege-aginduz zehazteko gakoa EITBren eta haren sozietateen organigrama, behar bezala onetsitakoa, da. Horretarako, gogorazi nahi dugu EITBko Administrazio Kontseiluak onesten duela organigrama, Erakunde Publikoko Zuzendaritza Nagusiak proposatuta (5/1982 Legearen 16.2 artikuluko f letraren



arabera). Unean-unean indarrean dagoen organigramak zehaztuko du nor den zuzendaritza-langilea. Horretarako, Administrazio Kontseiluak behar bezala onetsi du 2013ko ekitaldian indarrean egon den organigrama, TVCP-HKEEk onartu duen bezala, eta, bertan, auditoretza-txostenean aipatutako kargua eta horretarako izendatutako pertsona ageri dira. Beste gauza bat da 5/1982 Legeak ere aipatzen duen “komunikabideen zuzendari” kontzeptua, eta irismen mugatuagoa eta salbuespenekoa dauka; hain zuzen ere, lege-araudiak “goi-kargu edo horren baliokide” estatusa ematen die nahitaez.

2.- “EITBko eta haren sozietateetako zuzendaritza-kargua” eta “goi-kargua edo horren baliokidea” parekatzea akats bat da juridikoki; izan ere, bigarren kontzeptu hori Euskal Herri Administrazioaren izaera administratibistako arauditik eratortzen da, 129/1999 Dekretuarekin eta bereziki 130/1999 Dekretuarekin bat etorriz, araudi horrek berariaz xedatzen baitu erakunde eta sozietate publikoetan “goi-kargu” legezko estatusik ez daukaten zuzendaritza-karguak egon daitezkeela. Beste era batera esanda, aipatutako araudiak, erakunde eta sozietate publikoetarako, izaera hori daukaten zuzendariak (eta 130/1999 Dekretuaren eta talde horrentzat aplikagarria den gainerako araudi espezifikoaren menpe egongo liratekeenak) araudi hori aplikatu ezin zaien gainerako zuzendaritza-langileengandik bereizten ditu. Ondorioz, bi taldeak egon daitezke, argi eta garbi bereizita (ikusitako dekretu horren zioen azalpena), bai EAeko bai Estatuko erakunde eta sozietateetan ohiko arau den moduan.

3.- TVCP-HKEEk berak, aukera horretaz jakitun, aurreko auditoretza-txostenetan (adib., 2009ko ekitaldiko auditoretza-txostenetan) EITBren tesi juridiko hori baieztatu egin du, isilbidez baina argi eta garbi. Hain zuzen ere, erakundeari iradoki dio zuzendaritza-langileak “goi-kargu edo horren baliokidearen” figuraren bidez identifika ditzala, edo “obra-kontratuen edo analogoen” lan-harremanen bitartez, gainerako zuzendarientzako, eta bi kasuotan aldi baterako indarraldian, izendatzen duen zuzendaritzari lotuta.

Era berean, gai horri dagokionez gogorarazi nahi dugu TVCP-HKEEren beraren barruan desadostasunak daudela, Bonilla eta García jaunek 2009ko, 2010eko eta 2011ko ekitaldietako auditoretza-txostenetan emandako aurkako boto partikularren bidez agerrarazi bezala. TVCP-HKEEren beraren jarrerak gai honen inguruan duen inkongruentzia adierazten dute, zeren eta horien aurreko ekitaldietan profesionaltasun-printzipioan oinarrituta izendatutako zuzendaritza-langileak egotea onartzen baitzuen (nahitaez goi-kargua edo horren baliokidea izan beharrik gabe), merezimendu- eta gaitasun-irizpideetan oinarrituta sartu diren EITBko langile finkoei kontrajarrita. Boto partikular horrek honako hau adierazi zuen hitzez hitz:

“HKEEk beti adierazi izan du zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan badirela goi kargudunak diren zuzendariak eta halakoak ez diren zuzendaritzako langileak.

Hizpide dugun txostenera arte sekula ez da desadostasunik egon txostenak onartzeko egindako osoko bilkuretan. Osoko bilkura horietako kontseilukide guztiek legezkozat jo izan dute, inolako salbuespen edo gomendiorik gabe, 5/1982 Legearen ondoriozko prozedura.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

